

ONDAREA

GARAJEEI BURUZKO OHIKO GALDERAK

1.- Garajeen gutxi beherako prezioak (prezioen aldea metroen arabera da).

2021ean emandako datuak dira.

KONTZESIOA			
AUZOAK	GARAJEAK	PREZIOAK	METROAK
Beraun	Pablo Sorozabal	Itxiak: 9.712,06€ - 23.895,86€	
	Beraun-Bera		
	Isidro Ansorena		
	Aldakonea		
	San Markos – Monroy Plaza		
Pontika	Villas Viaducto	Irekiak: 17.545€	
	Pontika		
Kaputxinoak	Don Bosco – Basanoaga	Irekiak: 15.671,60€ Itxiak: 17.321,24€ - 23.404,29€	
	Gamón		
Galtzaraborda	Sarrera Parke kaletik	Irekiak: 10.995,96€ - 15.640,80€	
	Sarrera Urdaburu kaletik	Irekiak: 10.995,96€ - 12.133,47€ Itxiak: 17.252,28€ - 28.437,82€	
	Parke (Aparga)		
	Esnabide		
Alaberga	Kortsario Ikutza	Irekiak: 18.710,30€ - 29.854,54€	
	Lekuberri		
Gabierrota	Gabierrota	Itxiak: 5.091,38€ - 8.797,91€	
Agustinak	Markola	Itxiak: 18.808,36€ - 32.292,66€	
	Agustinak		
ALOKAIRUKO GASTUAK			
Autoak	70€ plaza itxiak		
	40€ plaza irekiak		
Motorrak	25€ - 8m2 baino gehiago		
	20€ - 8m2 baino gutxiago		
Trastalekuak	33€		
Fidantzak	150€ plaza itxiak		
	75€ plaza irekiak		
	100€ trastalekuak		

2.- Garajeen kokapena (Zerbikateko eta web-guneko planoak ez daude eguneratuta)

Paperean daukagun planoan begiratu

3.- Itxaron zerrendan posizioa

Zerrendak publikoak izan arte, honako helbidean partakatuko dituzte:

«Z:\Koordinazioa_Komunikazioa\ZU\Kontratazioa eta ondarea\ITXARON ZERRENDAK – EKAINA 2026»

Garaje eta modalitate (kotxea alokairua, kotxea emakida, motorra eta trastalekuak) bakoitzeko zerrenda bat dago. Trastalekuak eta motorrak beti alokairu modalitatean dira. Garaje batzuetan modalitate bat ez badago, mota horretako plazak ez daudela esan nahi du.

Hala ere, kontutan eduki informazio hau aldakorra dela eta hilean behin eguneratuko dutela, beraz herritarrari abisatu aldaketaren bat egotea posible dela.

4.- Itxaron zerrenden funtzionamendua

Guk [ZU](#) unitatean ikusten ditugun zerrendak ez dituzte aldiro eguneratzen, eskaera egin ziren arabera ikusten dira. Behin prozesu osoa bukatzen dutenean, hau da, libre dauden garaje guztiak betetzen direnean, zerrenden eguneraketa egiten dute, lehenago ez.

Zerrenda-ordenaren arabera deitzen da hautagaiei. Ematen diren pausuak:

- Txandaka SMS bat bidaltzen diete 10 eskatzaileko taldeei (telefonoz ere deitzen diete).
- Interesa duten pertsona guztiek beharrezko baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzen dute.

Gerta daiteke:

- Jada garajea interesik ez edukitzea
- Jada Erreterian errolatuta ez egotea
- Dagoeneko eskatzaileak edo bikoteak beste garaje bat edukitzea
- e.a.
- Baldintzek betetzen badituzte, beharrezko dokumentazioa ekartzeko deitzen diete; baina baldintzak ez badituzte betetzen, kasuaren arabera, zerrendatik kentzen dituzte, zerrendaren azken posizioa pasatzen dituzte, posizio berdinean mantentzen dituzte hurrengo prozesu arte...

ZER EGIN BEHAR DUGU zerrendan bere postuaren ondoren dagoen norbaiti deitzen ari zaiolako kexa bat jasotzen badugu?

- Baldintzak betetzen jarraitzen dutela konprobatu: Erreterian errolatuta jarraitzea, ibilgailuaren zirkulazio baimena Erreterian edukitzea eta beste garaje plazarik ez edukitzea jabetzan, azalera- eskubidean, emakidan edo usufruktuan.
- Kexa sartu nahi badu, idatzia bete dezala arazoa zein den azalduz eta Ondarera bidali. Beraiek erantzungo diete, beraiek baitira baldintzen lanketa egiten dutenak.

Oharra: kontuz Urdaburu eta Parke kaleko garajeekin, nahiz eta eraikina berdina izan, zerrenda desberdinak baitira eta herritarrak nahastu egiten dira.

5.- Garaje plaza ezagun bati saldu edo eskualdatu dakioke (inter-vivos)?

Derrigorrezko edozein oinordekoaren artean egin daiteke, hau da, ezkontideak, seme-alabak, gurasoak... artean; bestelako pertsonen artean ezin da, garaje-transmisioa itxaron zerrendaren arabera egingo litzake.

6.- Garaje bat eskuratu al daiteke beste bat jabetzan edo alokairuan izanda?

Gure erantzuna **EZ** izango da.

Berez, itxaron zerrendarik ez balego, ez litzateke arazorik egongo eta eskuratu ahalko lukete; baina egoera hori ez da erreala. Itxaron zerrendak daudenez, eskaera eginez gero, zuzenean itxaron zerrendaren bukaerara pasatzen dira, garaje-plazarik jabetzan edo alokairuan ez duten pertsonak lehentasuna baitute. Itxaropen faltsurik ez sortzeko eta herritarra alperrik bueltaka ibiltzea saihesteko, gure erantzuna ezezkoa izango da.

7.- Zer baldintza bete behar dituzte plaza bat eskuratzeko?

- Errenterian erroldatuta egotea
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena Errenterian edukitzea
- Errenterian garaje plazarik ez edukitzea jabetzan, azalera-eskubidean, emakidan edo usufruktuan.

8.- Aparkatu dezake beste ibilgailu batek, adibidez bikoteak, seme-alabak, lagunak...?

EZ, kontratua egiterakoan adierazten den ibilgailua bakarrik aparkatu dezake. Matrikula aldatu behar izanez gero, adibidez kotxea aldatu duelako, Udalari jakinarazi behar dio egin beharreko aldaketak egiteko. Kontuan eduki aseguru-konpaniara kontratuan dagoen informazioa pasatzen zaiola, eta zerbait gertatuz gero, bakarrik aipatutako ibilgailua kubrituko luke.

9.- Dibortzio kasuetan, zer gertatzen da garaje emakidaneekin?

- a) Kontratuan biak titular gisa agertzen badira, kontratuaren titulartasuna horietako bati alda daiteke. Ordainketaren tratua modu pertsonalean negoziatu beharko dute, udalak une horretan indarrean dagoen prezioa baino ezin izango baitie eman.
- b) Kontratuan titular bakarra agertzen bada, eta kontratua sinatzeko egunean irabazpidezko erregimenean (gananciales) ezkondu zuten, ezkontideak lehentasuna du erosteko itxaron-zerrendaren ginetik. Ordainketaren tratua modu pertsonalean negoziatu beharko dute, udalak une horretan indarrean dagoen prezioa baino ezin izango baitie eman.
- c) Kontratuan titular bakarra agertzen bada, eta kontratua sinatzeko egunean EZ zeuden irabazpidezko erregimenean (gananciales) ezkondu, ezkontideak ez dauka inongo lehentasunik, itxaron-zerrenda erabiliko da.
- d) Bietako inork ez badu garaje-plazarekin geratu nahi, itxaron-zerrenda erabiliko da.

10.- Heriotzaren bat egonez gero, zer gertatzen da garajearen emakidanekin?

- a) Kontratuan beste pertsonaren bat agertzen bada titular gisa, dena berdin jarraituko du.
- b) Kontratuan titular gisa beste inor agertzen ez bada, itxaron-zerrendaren gaintik derrigorrezko edozein oinordekoak dauka lehentasuna erosteko (ezkontideak, seme/alabak, gurasoak...)

11.- Garaje-plaza bat aukera daiteke TAO izanez gero?

BAI, TAO edukitzeak ez du eragozten garaje-plaza bat eskuratzeko aukera.

ALOKAIRU kasuei buruzko galderak

12.- Aldi baterako erabilerako plazak esku aldatu daitezke?

EZ, alokairu kontratua pertsona (ibilgailu) baten izenean egiten da eta dena-delakoarengatik plaza utzi behar badu, itxaron-zerrendara joko da.

13.- Zer baldintza bete behar dituzte alokairu plaza bat eskuratzeko?

- Errenterian erroldatuta egotea
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena Errenterian edukitzea
- Errenterian garaje plazarik ez edukitzea jabetzan, azalera-eskubidean, emakidan edo usufruktuan.

14.- Aparkatu dezake beste ibilgailu batek, adibidez bikoteak, seme-alabak, lagunen batek...?

EZ, kontratua egiterakoan adierazten den ibilgailua bakarrik aparkatu dezake. Matrikula aldatu behar izanez gero, adibidez kotxea aldatu duelako, Udalari jakinarazi behar dio egin beharreko aldaketak egiteko. Kontuan eduki aseguru-konpaniara kontratuan dagoen informazioa pasatzen zaiola, eta zerbait gertatuz gero, bakarrik aipatutako ibilgailua kubrituko luke.